


Hogei urte _____ emakumearen _____ alde lanean

Promoziorako Elkartegiaren Ikastaroak emakume askorentzat izan dira baliagarritzkoak. Etxeak dakarzan betiko ohituretatik urten eta beste bide barri batzu zabal dagiezan batez be; beste arloetan sartzeko abiapuntu bat izan da Elkartegia hainbat emakumerentzat.



XIRIPOT

LIBURUDENDA

Zubiaurre, 15, Tlf.: 172512 ERMUA

Emakumearen Elkartegiaren badago ere beste talde bat, lehen ikasle izandakoek osatzen daben taldea hain zuzen.



Ikerne Arzuaga, Elkartegiaren ardura-duna, eta laguntzaile taldea dihardue promozio-ikastaroak aurrera eroaten. Historia egiten

DROGETENITTURRI. Ze hasiera dauka Ermuan Emakumearen Elkartegiak? Nondik sortu zen asmoa?

IKERNE. Parrokian zegoan bi abadeengandik: Victor Morla eta Jesus Villalba hain zuzen. Eurak, sasoi hartako inmigratio gogor baten testigu izan ziran. Familia asko etorri ziranez, hainbeste emakume gazterentzat zeozer egitea beharrezkoa zala ikusi eben, uste osoz emakumearen promozio onak ekarriko ebazala; gainera, Bizkaiko beste Elkartegi batzuek ezagutzen ebezan.

Lehenengo ikastaroa 1970ean izan zan. Hasierako lehenengo urte bietan Ongarai auzoan kokatuta egon zan elkartegia, gero Bizkaiko Aurrezki Kutxak egin eban gaur daukagun lokala. Lehenengo urteetako arduraduna Miren Gerrikagoitia izan zan, berak zabaldu eban Elkartegia Ermuan, nik 10 urte daroaz.

D. Zuen taldeak kulturalak dira ala errebindikatzaileak be bai?

I. Izatez, talde kulturalak dira. Nire ustez, gauza biak nahiko lotuta doaz. Kulturea oso zabala da, pertsona osoa hartzen daukalako, eta holantxe ikusita, taldea, errebindikatzailea ez izan arren,

emakumeak kontzientzia hartzen daben neurrian, errebindikazio dinamika baten barruan sartzen da. Horregatik, elkartegitik pasatu diran emakume askok errebindikazio ekintzetan parte hartzen dabe, baina ez talde bezala, pertsonalki baino. Lehenengo urteetako emakumeak makina bat borroka egindakoak dira. Euren seme-alabentzat eskolak lortu ahal izateko zenbat manifestapen?

D. Eta orain nola ikusten duzu emakumea arlo horretan?

I. Orain asko aldatu da dana. Uste dot 'pasotismo' gehiago dagola. Francon garaian danok alkatuago geunden eta errezago ipintzen ginen ados edozein ekintza aurrera erroteko. Demokraziak bere gauza onak eukiko dauz, baina nehiko bananduta gabiltz; honetaz aparte udaletxeko ordezkariak ere dana eginda emoten deuskue, inizatibak aurrera eroan daiguzan, ez daukagu bide askorik, oztopoak baino. Hala eta guztiz, ez dot ilunegi ipintzerik nahi, ba emakume asko zintzo dabiltz lana egiten: Herri mailan, kultur-bidean, Eleizako taldeetan...etb.

D. Elkartegiaren bidez hainbat emakume ezagutuko dozuz, 'etxe-koandrearen sindromea' dala eta, zer deritzozu?

I. Banaka batzuek agertu izan dira osagileak bialduta, baina oso gutxi. Elkartegia

hurbiltzen diranak ez daukate 'sindromearen' arazorik, eguneroko ohitura eta rutinatik urtetzen ahalegintzen dira beste emakumeekin hartuemonak izan dagiezan. Horrela, euren mundu mugatu hori zabaldu egiten jake eta dauzkaten beharrei erantzun bat aurkitu.

D. Une hontan, zenbat emakume dabiltz ikastaroetan?

I. Guztiz larogei, hiru taldetan banatuta, honetariko hogetairu Eskola Graduatua egiten ari dira.

D. Nola konpontzen zarie hainbat urtetan iraun daiten Elkartegiak? Taldeak osatzeko oztoporik bai?

I. Propaganda onena Elkartegitik pasatu diran emakumeek egiten dabe, gero, kurtso hasieran, beti antolatzen dogu kurtsiloren bat Elkartegia ezagutarazteko. Oztopoak ere izaten doguz. Gaurko giroan ez da hain erreza promozio talde bat urtero osotzea. Nere ustez, kaltegarrirenetako bat telebista dugu. Telesail garonabako guztiak bazkalosteetan ipintzen dabez eta emakumei zuzenduta gainera. Kontsumo gizartea ere hor dogu, honek ere kalteak bakarrik dakarkiguz, gehienbat itxura gordetzea eta, azal hutseko pertsonak izatera bultzatzen gaitu, eta ez heldutasun bat lortzera. Badi-ra, baita ere, etortzeko bilduz diranak, euren kultur maila agirian gelditzen dala-ko.

D. Ze motako klaseak erabiltzen dozuez?

I. Oinarrizko Ikastaroek urte bi irauten dabez. Hauek amaitu ondoren, nahi dabenak, 'Eskolartasuna' eta 'Eskola-Graduatua' egin daitez. Guretzako garrantzitsuenak oinarrizko Ikastaroak dira, hauek emakumearen premietan finkatuta daudelako hain zuzen. Gai desberdi-

nak erabiltzen doguz euren partizipazioari indar handia emonik.

Interesgarri eta arinago egin dagiezan, klase praktikoak ere erabiltzen doguz: eskulanak, sukaldaritza...etb.

Gaiak taldeka aztertzea oso positiboa da, alde batetik euren hartu-emonak indartzeko; bestetik eurenaganako konfidantza zuzpertzeko.

Ermuko emakumeek Elkartegi honekin aukera on bat daukatela ikusten dogu.

Emakumearen Elkartegian badago beste talde bat be, lehen ikasle izandakoek osatzen daben taldea hain zuzen: 'Antiguas alumnas' deritzonak. Aspalditik jo ta ke lanean diharduna M^a Isabel Garitagoitia dogu. Bera da Oinarrizko Ikastaroetako ikasleen jostuna eta izendatutako taldearen laguntzaile zintzoa

DROGETENITTURRI. Ze berezitasun dauka lehen izandako ikasleek osatzen dozuen taldeak? Zeintzu dira zuen helburu garrantzitsuenak?

M^a ISABEL. Hasitako kultur bideari jarraipen bat ematea da gure lehenengo asmoa. Gaur egun ezin gaitezke geldirik egon, berriztatzen eta gauza berriak ikasten jarraitu behar dogu. Gainera, edozer gauza egin nahi badogu, bakarka ezin geinke ezer egin, taldearen laguntza eta bultzakada beharrezkoa ikusten do-

gu. Beste helburu nagusienetariko bat hauxe da: Ermuan dagozan arazoak jakin arazi informazio baten bidez, konponbideetara bultzatzu.

D. Une hontan, zenbat laguntzaile zagoze eta zer da zuen eginkizuna?

M.I. Hogei pertsona gabiltz, gutxi gora behera, laguntzaile lez talde honetan. Hilero alkatzen gar erabiliko doguzan gaiak aukeratu eta lanak banandu daiguzan. Gai batzuek gure artian ere prestatzen doguz.

D. Nola egiten dozue Ikastaroko egitaraua, Elkartegira joaten diran emakumeek parte hartuz ala zeuen artian?

M.I. Egitarau orokorra etortzen diran emakume guztien artean egiten dogu, Kurtso amaieran, ebaluaketa bat egin ondoren, danen interesak ikusi eta batu egiten doguz, gero kurtso hasieran kontuan izan daiguzan.

D. Ze motatako hitzaldi edo kurtsiloak antolatu izan dozuez azkenengo urteotan?

M.I. Hilero gai bi erabiltzen doguz arratsalde bitan elkartuz, era askotako gaiak izaten dira. Aurtengo gai asko gizarteko gertakizunei buruz izan dira, Ermukoei buruz ere informazio batzuek euki doguz.

Honetaz aparte, kurtsoan zehar, beste Ikastaro labur batzuek ere antolatzen doguz, hauek beste egun batzuetan izaten dira: Sexualitateari buruz, sukaldaritza, eskulanak...

D. Badaukazue asmo berriren bat gerorako?

M.I. Gauza barriak beti sortzen dira. Herri mailan emakumeen partizipazio haundiagoa lortu nahi genduke, honek animatzaile onak izatera bultzatzen gaitu. Asmoak, euki badaukaguz, gero ikusi behar erantzuna.

